

Txorierriko 24. Ipuin lehiaketa


OINARRIAK

1. Lanak euskaraz izango dira.
2. Dagokien kategoriaren arabera, nahi dutenek parte har dezakete.
 - A kategoria: 7 urtera arte
 - B kategoria: 8 eta 9 urtekoak
 - C kategoria: 10 eta 11 urtekoak
 - D kategoria: 12 urtetik 15 urtera artekoak
 - E kategoria: 16 urtetik gorakoak
3. Gaia librea izanik, lanek argitaratugabeak eta euskaraz sortuak izan behar dute. Lanen ebaluaketan, besteak beste, irudimena, kreatibitatea eta presentazioa hartuko dira kontuan.
4. Lanak ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango eta parte-hartzaile bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu.
5. Lanak gutunazal handi batean aurkeztu behar dira eta kanpoko aldean kategoria eta bakoitzari dagokion udalerrria baino ez dira idatziko. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutunazal txikiaren barruan izen-deiturak, helbidea, adina eta telefonoa jarriko dira.
6. Lanak Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira eta azken eguna 2021eko azaroaren 26a izango da.
7. Epaimahaiak lan irabazleak aukeratuko ditu eta bere erabakia apelaezina izango da.
8. Kategoria bakoitzean sari bat banatuko da. Horretaz gain, kategoriako eta herriko bi akzesit emango dira. Akzesitak, Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko sari gabeko bi ipuin onenei emango zaizkie.
9. Sari banaketarako eguna eta lekua aldez aurretik jakinaraziko da.
10. Saritutako lan guztiak Txorierriko Mankomunitatearen eskuetan geratuko dira, eta honek erreproduzio eta hedapen eskubideak izango ditu. Gainontzeko lanak Txorierriko Mankomunitatean 2022ko urtarrilean zehar batu daitezke.
11. Mankomunitateak irabazleen izen-abizenak bere web orrian argitaratuko ditu, eta adin txikiko parte-hartzaileen irudiak jaso eta argitaratu ahal izango ditu, web-orrian, aldizkarietan, karteletan, etab. antolatzen dituen jarduerak iragartzeko, salbu adin txikikoen lege ordezkariak espresuki oposizioa agertzen badute.
12. Lehiaketan parte hartzeak arauen onarpen osoa dakar.

Txorierriko

24. Ipuin lehiaketa

Idazteko ez dago adinik
ANIMA ZAITEZ!



Lanak entregatzeko epea: azaroaren 26ra arte, liburutegietan edo Mankomunitatean



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral